

# ZALANTZAZKO HAINBAT PUNTU MORFOSINTAKTIKO

Hizpal \*

## 0. Sarrera

Kongresu honetako aztergaien zerrendari begiradaxo bat egitea aski da, aipatzera goazen «zalantzen zerrenda» honen arrotzasuna berehala sumatzeko; arrotzak, jakina, ez dira gaiak, hauek azaltzeko eta aztertzeko modua baino. Azalpenen baten eske bait dago arrotzasun hori, saia gaitetzen bestetara baino lehen, eta besteok beren testuinguruan har daitezen, gure hemen agertze honen nondik-norakoen berri ematen.

Talde baten lana aurkezten dugu, argialetxeetan zuzentzaile-lanetan edo dihardugunon talde batena. Talde honen zereginik behinenetakoa, hain zuzen, taldea bera eratzea da; elkartzea, alegia, batera edo bateratsu jokatu ahal izateko euskarari dagozkionetan.

Euskal idazlegoarengan historia luzea du elkartu beharraren kontzientziak, eta hor dago, lekukorik aipatu beharrik izanez gero, euskara batzeko ahaleginen bide luzea eta lortu diren helburuak. Idazleen ahaleginen hari horretan txertatzen da, maila berean ez bada ere, zuzentzaileon elkartu nahi eta beharra ere. Idazleek bezalaxe sumatzen bait dugu zuzentzaileok batzeko premia eta, esango genuke, areago sumatzen dugula: idazle askoren eta joera desberdinetako idazlanak iristen zaizkigu esku artera; eta, horiek nolabait bateratzea denez gure zeregina, ezinbestekoa dugu arauarekiko erreferentzia: norberaren gustuak ez baino batetik eta bestetik datozkigun arauak bete eraztea da gure egitekoa.

Premia horrexek eragindako hainbat saio egin izan da, Euskaltzaindiak erabaki gabekoetan batasuna lortu nahirik. 1968ko Arantzazuko bileraren ondokoetan, adibideren bat edo beste aipatzeko, gogora ditzagun «Anaitasuna-k bere idazleei proposatzen dizkien zenbait idaztarau» (1975), 1977an Eibarren

---

(\*) «Hizkuntz Puntu arrunten lanketa» zeritzan hasierako gure langaien zerrendari, eta deitura hori laburtu beharrez sortua da «Hizpal» akronimoa: lanketa horretan ari gara J.R. Aizpurua eta T. Barronetxea (Elhuyar), J.A. Ormazabal (Elkar), M. Murua (Erein), G. Nazabal (G.I.F.), I. Zubeldia (G.I.L.E.), A. Ibarzabal (Itzultzaile-Eskola) eta J.A. Aduriz (UZEI).

«ontzat edo eman zen zenbait puntu», FIBIZEk moldaturiko «Bikoizketako euskararen arazoak», eta beste.

Duela urtebete hasi zen gure taldea elkartzen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailordetzako M. Zalbide eta R. Berriozabal jaunen deiari erantzunez: «euskal ikasliburugintzan diharduten argialetxeen eta Hezkuntza Sailordetzaren arteko harreman-bideak argitu eta arautu beharra» agertzen zuen dei honek, «ikasliburuen onespren-prozedurak ahalik era zuzen, azkar eta egokienean burutu ahal izateko»; eta «erabilmaiztasun handiko hainbat puntu arruntan idatzizko erabilera oraindik arautu gabe egotea» aipatzen zuen horretarako «trabarik ohargarriena» bezala.

Eginkizun aski zehatzak ezartzen zizkion deiak taldeari: gure lanean sortzen zaizkigun «kezka, oztopo, auzi eta zalantza» *jasotzea*, batetik, eta, bestetik, horiek nolabait *sailkatzea*. Horrezaz gainera, gure «ikuspegi eta hobespenak» azaltzea eskatzen zitzaigun. «Euskara Zerbitzuak, azkenik —zioen deiak—, Euskaltzaindiari aurkeztuko dizkio, argibide eske, auzigai nagusiak».

Hasiak gara egiteko horiei poliki-poliki aurre ematen: egindakoen eta eginkizunen berri ematerakoan, bilketa- eta hustuketa-lana aipatu behar da lehenik: Euskaltzaindiak arautu gabeko forma eta erabilerak —eta baita arauturik dauzkanak ere— jasotzen ari izan gara: idazle batek batera eta bestek bestetara darabiltzanak, gure lanean sortzen zaizkigun auziak, geuk egiten ditugun «zuzenketak», etab. Pentsatzekoa denez, hitzen (eta esamoldeen) formari dagozkio jaso ditugun milaka fitxetatik asko eta asko; baina morfosintaxiari dagokionik ez da falta.

Datuok pixka bat sailkatzen eta sistematizatzen saiatu gara ondoren. Hainbat kasutan unean uneko irtenbidea eman beharra izaten dugu; baina, horrekin batera, bazter ezina dugu oinarri teoriko-sistematikoak lantzeari heldu beharra, geure buruak argitzeko, erizpideak finkatuz joateko, joerak nabarmentzeko, etab.

Kasuren batzutan posible gertatu zaigu, horrela, forma edo erabilera batu nahiz bateratu bat hobestea. Hobetsi, ordea, esan gabe doa, *guk* eta *guretzat* hobetsi ditugu, eta Euskaltzaindiak besterik erabaki arte hobetsi.

Lehen urrats batzu baino ez dira horiek, bistan da. Baina ukaezina da, era berean, argitasun-bide gertatu zaizkigula: bai hiztegian eta bai morfosintaxian Euskaltzaindiak jadanik erabakiak dauzkanak ikusteko eta berrikusteko aukera eskaini digute, arrazoi bategatik zein bestegatik «eredu»tzat har daitezkeen gaurko idazleen joerak ezagutzekoa, hiztegi, gramatika eta gisakoetan proposatzen direnen berri izatekoa, bakoitza geure aldetik ibiliz sortu dugun anabazaz ohartzekoa...

Bildu ditugun arazo horiek dakartzagu gaur hona, Gramatika Batzordeak eskaini digun paradaz baliaturik. Nolabait sistematizatzen saiatu gara, geroen gorago: jakina, auzirik sortzen ziguten puntu eta puntutxoak ekarri ditugu *guk*, auzirik sortzen zigutelako, hain zuzen. Arazo hauek ez daude, beraz,

gramatika batek bere osotasunean ikusten dituen arlo bezala antolatua: oso noizbehinka aurkez dakigukeen forma edo erabilera zalantzakoren bat edo beste tartekatzen inoiz ahalegindu garen arren, oro har, beren maiztasunagatik —eta, ondorioz, irakaskuntzan eta izan dezaketen eragin nahastaileagatik— erabakitzeo premiarik larriena dutenak —hots, halakotzat jo ditugunak— aurkituko dira hemen.

Idazkerari eta hiztegiari dagozkionak, batetik, eta adibidez osaturiko forma-aniztasunen zerrenda luzeagoa, bestetik, hurrengo baterako utziz, arautu beharrekoen ikuspegi zabal antzeko hori eskainiko dugu gaur, hiru sailetan banatuz gure zalantzak. Ez da oso akademikoa, agian, banaketa hau; baina ez dauka zertan izanik ere: gure eginkizuna, Gramatika Batzordeak zioenez, «problema —txikiak nahiz handiak— non dauden» seinalatzea bait da, eta ez besterik, besteak besteri dagozkionez.

## 1. Izenaren morfologia

### 1.1. Deklinabide-kasu batzu

Euskaltzaindiak erabakiak dauka «hizkuntza baturako hobetzat etxekitzen dituen formak» deklinabideari dagokionean. Kasu edo atzizki batzu noiz eta nola erabil erabakitzerakoan, hala ere, dudarik sortu ohi zaio idazleari. Adibidez, zein kasutan dira zilegi edo/eta erabili beharrezko *-ko*, *-tik*, *-(r)aino* forma arautuen aldaerok: *-go*, *-dik*, *-danik*, *-daino*: «hurrengo» (baina «hurrenez-hurreneko»), «egungo gizartea» (baina «eguneko aztergaiak»); «barrendik», «ehundik/ehunetik gora» (cfr. «ehuneko»); «Errezilgo», baina «Israelgo»?; «Afghanistandik»?; «oraindanik», «betidanik»; «oraindaino(koan)», «egundaino(koan)».

Kontsonantez bukatutako hitzen ondoko *-e*-epentetikoaren erabilera ere ez da beti argiegia: «gaurko», «biharko» etab.; baina «mendian zeharko» ala «zeharreko»?

Ez da argi ikusten *-tzat* atzizkiaren txertaketa nola egin, izen batzuren bukaerako eta atzizki honen hasierako hotsak elkargaitzak direnean: bat+tzat, arrunt+tzat, aberats+tzat, etab. (Bidenabar, atzizki honetan sortzen den beste arazotxo bat aipa daiteke: superlatiboaren *-en* markari lotzen zaionean, kasu destinatiboko forma bera suertatzen da izenean; zilegi ote da, anbiguitatea desgiteko, *-a-* tartekatzea (onenatztat hartu, txarrenatztat, ederrenatztat...)? Haurhizkeran egiten (omen) den *-a-*ren tartekatzea legoke hemen auzitan (Cfr. «hortzatxikiak erakutsi») edo P. Lhande-ren hiztegian datozen *zurtzatasun*, *zurtzategi*, *zurtzatu* formetan ageri denarena).

Adlatibo bukatuzko *-rarte* eta *arte* formen «distribuzio konplementarioa» xehekiago argitzea komeni litzateke, adibide batzuren bidez edo: «oraintsu arte», «hamazazpi urte arte», «1900 arte», «hurrengo egunerarte», etab.

Azken galdera formari dagozkionetan: *-ehe* bukatu hitzak (xehe, mehe) salbuespen al dira pluraleko deklinabidean eta *-en* superlatiboaren marka hartzean? Cfr. «paperik mehe(E)na», «abere xehe(E)i dagokienez».

Kasu batzuren banaketa izan daiteke beste zalantza-iturri bat: «noizko», «biharko» [egingo dut lana] daude batetik; «etzi(ra)ko» «zerta(ra)ko» bestetik. Nola esan behar da, hortakoz: «Merkataritza eta Turismoko kontseilaria», ala «...Turismorako...», «lana bukatu nueneko berandu zen», ala «...nuenerako»?

Are zalantzazkoagoa da instrumentalaren eta sozietiboaren (eta inesiboaren) banaketa: «filmeaz hasiera eman», «kasu-atzizkiez erabili»; «lurra, zerua-rekiko oposizioaz».

Noiz eta zein baliorekin erabili behar da *-tik* ablatiboa, zein murrizketarekin? 'Desde', 'origine' gisa definitu ohi da, baina cfr. «jauregi aitzinetik iragan», «aho itxitik ez da sartzen eulia», «herritik agertuko gara».

## 1.2. Birdeklinabidea

Deklinabide-kasu batzuri *-ko* atzizkia eranstean gertatzen den kontsonante-elkarketaren ondorioa arautu beharra legoke: *-tzat + -ko* («aitatzako», «bukatutzatko»), *-(r)antz + -ko* («goranzko», «baturanzko»), *-ganantz + -ko* («zuregananzko»); *-tik*, *-gandik* dira ablatiboaren forma hobetsiak, baina horiei *-ko* gehitzean, *-tikako* (eta *-gan(d)ikako*, *-danikako*) formak ere agertzen dira, *-tiko*, *-gan(d)iko*, eta *-daniko* formen ondoan. Ontzat ematekoak al dira forma guztiok eta, baiezkoan, bai al da hobestekorik?

Zein neurritan da zilegi eta gomendagarri *-n + -ko* elkarketatiko *-ngo* forma, *-ko* soilaren ondoan? Cfr. «hemengo eta bestetango arazoak».

Ikustekoa litzateke beti hain nabarmena ote den *-(r)entzat* eta *-(r)entzako*, adizlagunaren eta izenlagunaren arteko banaketa.

Lanak ematen ditu, azkenik, *-(r)ekiko* atzizkiaren balioa mugatzeak ere. Cfr. «gurasoekiko harremanak», «euskalkiekiko argibideak».

## 1.3. Deklinabide-paradigmak osatzeaz

1.3.1. Osatu, zalantzak sortzen dizkiguten formen deklinabide-ereduak osatzea, edo ugaritzea, eskatzen da hemen, forma berezi horien arabera. Adibidez:

Diptongoz amaituriko hitzak nola deklinatu behar diren dago auzitan: zeintzu doaz bokalez bukatuak bezala eta zein kontsonantez bukatuak bezala? Cfr. «mahai(E)an», «gai(E)tik», «kartoi(E)an», «hodei(E)tik»; «gau(R)ik beltzena», «lau(R)i entzun diet gauza bera».

Nola egiten da *-a* organikoz amaitu hitzen deklinabidea, artikululu gradu hurbilekoa hartzean? Cfr. «aldaer(A)ok», «form(A)oi», «joer(A)on».

Izen propio arrotzekin, galdetua dugu zilegi al den *-ko* eta *-tik* atzizkien hasierako kontsonantearen ozenketa (adib. Iran + *-ko*, *-tik*). Eta zein da izen arrotzok bokalez ala kontsonantez amaituriko hitzei dagozkien atzizkiak hartu behar dituzten erabakitzeko erizpidea, grafia ala ahoskapena (adib. Lacroix + *-en/-ren*)? Izen propioen «itxura» dela eta ere gertatzen da bikoiztasunik *r-z* maitutakoetan: Axularrengan *vs.* Kreutzer-entzako.

Sigla eta laburdurei zein atzizki erantsi erabakitzeko, horiek «berez» nola bukatzen diren jakin beharra legoke, zeren ordezk dauden; nola irakurri behar da, adib., EAJ: [eax] ala [eaxota]? Zer ordezkutzen du *iz.* laburdurak: «izen» ala «izena»? Bestela esan: EAJek ala EAJk, *iz.ak* ala *iz.k* dira horien ergati-boak? Gogora pluralean ere agertzen direna: ISek (Izen-Sintagmek), *iz.ei*. Ikustekoa litzateke *-a* mugatzailearen kontu hau izen propioetan ere: «Hezkuntza Sail-*a*-ko», «Marx-en Kapitala-*n*», «Pariseko Eskuizkribuak-*e*.(ta)*n*», «Inozentzio XI./XI.a Aita santua», etab.

1.3.2. Erakusleen deklinabide-paradigma jadanik erabakia «osatzeko», komenigarria litzateke oharretako forma ontzat emanak zerrendan bertan jasotzea, honetara jotzen bait dugu argi bila. Gero, horiekin zerikusirik baduten beste formak erabakitzea legoke.

*ber-*, *-xe-*, *-bait-*, *-nahi-* aurrizki eta ertizki edo/eta atzizkiak daramatzaten erakusleen deklinabidean hainbat forma desberdin agertzen da: bero(r)iek, hone(t)xekin/honekintxe, norbaiti/noribait, nornahiri/norinahi. Orobat, morfema berak daramatzaten adberbioetan: hortxetik/hortixe(k), nonbaitetik/nondibait, non(n)ahira/noranahi.

*bera(k)* erakuslearen eta *zeintzu*, *nortzu* galdetzaileen deklinabide-paradigmak zehazteaz gain, ongi legoke hainbat erabilera argitzea: *bat+be(de)ra* eta *nor+bera* izenordeena, adibidez, *bera* eta *berdin* formen banaketa, *gizon-Ø* *bera/gizon-a* *bera*, (gure herrian) *berean/bertan* formena, etab. Izenordeen erabilerari dagozkionetan, joera desberdinak suma daitezke «Linschmann-Aresti legea» aplikatzerakoan eta *bere/beren/euren* formen banaketan. Beti argi ez dagokeen beste banaketa bat, *ze/zer/zein/zeinen* galdetzaileena da, eta *edozer/edozein*, *zernahi/zein(n)ahi* predeterminanteena.

1.3.3. Forma-aniztasun askoren iturri den zenbakien idazkera zeharka berderen gogoratu ondoren, duten maiztasunagatik argi-premia handian dauden puntuok aipa daitezke zenbatzaileen inguruan: *bat*-en deklinabide-paradigma eta forma mugagabeen erabilera (*batetan*, etab.), *batzu/batzuk/batzuek* zenbatzailearen deklinabide-paradigma eta banaketa; *zein* forma dagokie zenbatzaile zehaztuek determinaturiko ISei, mugatua ala mugagabea? Cfr. «bi urte(ta)ko haurra».

Ordinaletan, *lehen/lehenengo/lehenbiziko/lehendabiziko...* eta *azken/azkenengo/azkeneko/atzen/atzeneko...* formak ikusi ohi dira, maiztasun berarekin ez bada ere: badago hobestekorik? *-garren/-garrengo* bitasuna seinala daiteke, gero: bigarren formak izenlagun-baliorik bai al du honez gero, ala *-garren-en* baliokide soila da? Izenlagun bezala erabiltzeko *-garreneko* forma

egokiagoa ote? («lehen eguneko aztergaiak, bigarrenekoak...»). Bide beretik argitu beharko litzateke, noski, *-garrendik/-garrenetik* formen arteko aukera ere.

#### 1.4. *Forma mugatua ala mugagabea?*

Hitzetik hortzera ez bada ere, aski maiz agertu ohi diren esamoldeak nola erabil galdetu nahi dugu: «ahotan hartu», «arrisku(t)an jarri», «gogo(t)an eduki», «norbaiten kalte(t)an, mesede(t)an», «(halako) mota(ta)ko», «uste(t)an», «zalantza(t)n egon»... Horien ondoan, eremuren batzutan behintzat asko errepikatzen diren *ezker* eta *eskuin* daude: «ezkerre(ta)tik eskuine(ta)ra ibili».

Gisa bereko zalantzen iturri dira askotan itzulpenak: «barne-efektu(E)tarako» ('a efectos internos'), «ondorio(E)tarako» ('a los efectos'), «plangintza eta inbertsio(E)tarako zuzendari» ('director de planificación e inversiones').

*inongo, inolako, halako, edonolako...* erabil al daitezke (pre)determinante-funtziotan? («halako liburutan irakurria», «halako zuhaitz salbatu behar dela»; «edonolako hondamendiren aurrean»). Izan al daitezke *bat* eta *edozein* IS beraren determinatzaile? («gazte hauetako bat edozein zen Lauenetxeko Joana», «har dezagun edozein etxe bat»).

#### 1.5. *IM bat baino gehiagoko ISak*

Alegia: *eta, edo, nahiz, zein* bezalako juntagailu batek elkartzen dituen elementuetako zeinek eraman behar ditu mugatzailea eta kasu-atzizkia? Eta zein kasu-atzizki? Galdera bera egin daiteke adjektibo elkartuetako graduatzaile-markaz, edo bi hitz konposatuk amankomunean duten osagaiak. Cfr. «biztanleria [sailkatuko da] adin-*a*-aren, sexu-*a*-ren eta altura-*ren* arabera / ... adin-*a*, sexu-*a* eta altura-*ren*... / ...adin-Ø, sexu-Ø eta altura-*ren*...»; «biztanleriaren sailkapena urte-*en*, ikasket-*en* eta ondasun-*en* arabera / ... urte-*ak*, ikasket-*k* eta ondasun-*en* ... / ... urte-Ø, ikasket-Ø eta ondasun-*en*...»; «seme-Ø eta alabarentzat / seme-*a* eta alabarentzat / seme-*a*-ren eta alabarentzat / seme-*a*-rentzat eta alabarentzat»; «agintaririk aberats-Ø eta zorionsuen»; «atze nahiz aurrekaldea». Aditz-izenak elkartzean ere antzeko duda-mudak agertzen dira: «azken bokalea ken-*du* eta labor-*tzeko* duen joera».

## 2. Aditzaren morfologia

### 2.1. *Aditz nagusia*

2.1.1. Partizipioak direla eta agertzen diren arazoetan ohizkoenetako bat, aditz-erroaren erabileraren inguruan sortzen dena da. Maiz agertu ohi da hau,

aditz laguntzailerik gabe, galdetzaillea daraman perpaus nagusi nahiz menpekoan: «mahatsa erostean, nola eska(tu)?», «badago oraindik zer bila(tu) eta zer iker(tu)», «forma soilak nola erabil(i) jakin behar dugu». Baita esamolde egin batzutan ere: «liburua has-i eta buka-Ø irakurri».

Sistematizatzen errazagoa dateke erabilera hori beste zenbait kasutan: *arazi* eransten zaionean (baina cfr. *agerrarazi/agerrerazi/agertarazi/agerterazi*), edo subjuntibozko, inperatibozko eta ahalezko aditz laguntzaileekin doanean. Hauetan ere, alabaina, ez da beti-beti nabarmena; mutur-kasu batzu aipatuko ditugu, araua zurrunki jarraitzearen aurkako jarreraren oinarrian egon daitezkeelakoan: aditz-erroa gorputz txikikoa denean («lot daitezke», «lant daitezzen», «abes iezadazu»), afrikatuz amaitzen denean («idatz dezakegu», «erdiets zezan», «sinets iezadak»; areago, afrikatu horrek aurretik sonante bat duenean: «irents ditzake», «igurtz ezak», «erants dezadan»), adjektibo edo izen baten forma bera lukeenean («% 70ean txiki daiteke», «euskara nagusi dadin», «bero hadi»), edo aditz-erro bat baino gehiago elkartzean («landa eta eraiki daiteke», «ikus eta defini ditzagun elementuok»).

Ez da batere argiagoa jokabidea ezezko perpausetan, batez ere laguntzailearen eta aditz-erroaren artean beste elementuren bat tartekatzen denean: «umeak ez daitezen asper», «makina hauek ezin daitezke automatikotzat har», «hainbatetan ezin baitaitezke era burututik automatikoki erator», «ez gaitezen, bada, baldintza horretan eror».

Arazoa are ilunagoa da aditz laguntzailerik gabeko inperatiboetan: «argi ibil(i)», «azter(tu) ondoko testua», «buru(tu) ondoko kalkulu logikoak», «alaitu) aurpegi hori», «ez beldur(tu)».

2.1.2. Aditzaren era burutuari gagozkiolarik, ezagunak dira *-(a)z* atzikia eranstean agertzen diren bi- eta hirukoitzasunak: «abiatu(a)z», «eginaz/-ez», «igaro(a)z», «ibili(a)z/ibiliez (gero)», etab. Gauza bera esan daiteke *-a* organikoaz amaitzen diren era burutuon deklinabideaz: «aterea(k)» eta «ateraz/ate-reaz», «botea» eta «boteaz/botaz», etab.

Jokaera desberdinak daude, *-ratu* (eta *-ganatu*?) bukatzen diren aditzen erabileran ere: «argitara(tu) dugu», «etxera(tu) zenean», «kalera(tu) diren izkribuak» (baina «konturatu gara», «atzerriratu dituzte»).

Bai al dago argi zehazterik *askatuta/askatua* bezalako adizlagunaren eta adjektiboaren banaketa? Cfr. «Eskolak erabat ireki(t)a egon behar du joera desberdinei».

2.1.3. Era burutugabea, *-tzen* eta *-ago* morfemen segida seinalatuko genuke zalantza-iturri bezala («euskaldunak euskaldunagotzen/euskalduntzenago» [zituen]) edo *-tze*ko/*-tzerako* eta *-tze*koan/*-tzerakoan* formen arteko aukera («gu hara iriste(ra)ko berandu izango da», «mendira igotze(ra)koan»).

2.1.4. Beste maila bateko arazoak sortzen ditu, jakina, era etorkizuneko partizipioaren *-ko* eta *-en* morfemen aukerak, non, noiz eta (gure artean, batez ere) norentzat idazten den kontu.

## 2.2. Aditz laguntzailea

Aditz etikoaren (hitano/zutanoen) paradigmak eta erabilera arautu gabe daudela gogoratuz hasiko ginatke, eta galdera bat egitera pasako: zenbait gogor egiten omen zaio laguntzaile arauturen bat edo beste, praktikan horretara makurtu arren, eta, puntu konkretuago bat aipatzearren, inperatibozko forma laburtu batzu onartuak ikusi nahi lituzke, Euskaltzaindiak bestetan onartuen bide beretik; adibidez, «ekarriozu»ren bidetik «eskaiozu» egiterik bai ote dagoen galdetzen da. Nolanahi ere, kasuistika ongi zedarritu baten gainean erabakitzea komeniko da, are anarkia handiagotan ez erortzeko.

Denboren komunztaduraz zer argiturik egon daiteke (Cfr. «eskatu izan batenio, egingo zu(ke)en»), baina askoz premia larriagokoa dirudi numero-komunztaduran gabiltzan baino baterago ibiltzeak. Nahi adina pila daitezke ondokoon gisako forma bikoitzak: «bi baldintza bete behar d(it)u», «zazpiehun bat lagun bildu z(ir)en elizan», «ehun baino zuzenketa gehiago d(it)u», «jende askok erabiltzen d(it)u», «franko gauza desegin d(ir)a», «zelai ugari pinuz bete d(ir)a», «zenbat bit ote dau(z)ka...?», «hainbat jende mintzatu d(ir)a», etab.

## 3. Zenbait juntagailu

Gezurretan ariko ginatke sintaxian topatzen ditugun larritasunik nabarmen eta ugariak hemen aipatuak direla esango edo aditzera emango bagenu. Gure dudak (eta bakoitzak bere nola-halako «gaitasuna»ri jarraituz egin ohi dituen zuzenketa eta birmoldaketak) sistematizatzeko, ordea, ez gara gauza. Horregatik, zenbait juntagailuren forma eta erabileraren inguruko zailtasunak gogoratuko ditugu hirugarren sail honetan.

*eta* (eta *edo*) juntagailuez Euskaltzaindiak arau batzu emanak ditu, eta idazlegoak aski kontutan izan dituela esan daiteke, inoiz edo behin nahasterik sortzen bada ere («Arazo horiek utzi eta, gatozen harira», «nahi eta erasozion», «garbitu eta gero, jantzi egin zen»).

Koordinazioetako elipsiak direla eta, izan ohi da auzirik: «Joxe(k) eseri [zen] eta sagarra jan zuen», «Gizonak/-ek, eseri zirenean, ogia jan zuten». Zailantzarriagoa dirudi perpaus koordinatuek aditz laguntzaile desberdinak dituztenean hauetako bat ezabatzeak: «erdarakada direla esaten dute batzuk, eta besterik gabe gaitzesten [dituzte]», «zenbait puntu zehaztu [dira] eta bozketa egin da».

*ala* eta *edo*, *nahiz*, *zein* juntagailuen banaketan ilungunerik egon daiteke; halere, ilunagoa gertatzen da *-(ah)ala*, *-(ah)alako* partikulen forma eta erabilera: «Irtzen ala iltzen zituen», «asmatu alan esaten zituen ipuinak», «ur garratza, edan ezin (ah)alako», «gerta ala gerta», «zuk (h)alako bost ditut nik».

Argi-eske daude, halaber, *ezezik* / (*izan*) *ezik* bikotea («denak elkartu ziren, osaba ez ezik»), edo *arren*-en balioak.



Erabat arruntak direnen ondoan, bada arrotz egiten zaigun *ere*-ren erabile-ra zenbait, arrotz egiten zaigula eta besterik gabe baztertzekoa ez denik, agian: «Badira ere ari zaizkigunak...», «egoera kontutan eduki behar dugu ere», «ez da izan lehenbizikoa, ez da ere izango azkena», etab. Elementu honen beste zenbait testuinguru ilun seinalatuko genuke, azkenik: *bai... ere/ baita... ere/ bai... eta baita... ere/ bai... eta bai... ere/ ezta... ere / ezta ere... / ez ... ezta... ere / ez... ez eta... ere*.

*ez* bera errepikatzekotan, noiz, non eta nola egin behar da? Onargarriak al dira «ez bururik ez hankarik gabe», «ez bururik ez hankarik ez duena» bezalakoak?

«hau *ez, baina* hori» eta «hau *ez baino* hori» gisako desberdintasunak ere topa daitezke: «askatasuna ez helburu, baina medio bezala ulertu», «lana bukatu ez baino lardaskatu egin dute».

*zeren, non, zein, ezen...* juntagailu menperatzaileraren bat daraman perpau-seko markaren (*bait-*, *-en*,  $\emptyset$ ) erabilera zehaztea eskatuz buka genezake oraingo hau; horietako bakoitza noiz erabili behar den, alegia.

\* \* \*

Problemak seinalatzea tokatzen zitzaigun, eta batzu bederen ikus daitezke orrialde hauetan. Ez dira dauden guztiak, beste hainbat gehituko lituzke kontu hauetan jantziago batek.

Bat baino gehiagori, ordea, hutsaren hurrengoak irudituko zaizkio, denak ez bada, gehienak. Gu, berriz, behin eta berriro sortzen zaizkigun galderak bait dira, handik edo hemendik irtenbideren bat eskaini beharrean aurkitzen gara.

Neke handirik gabe suma daiteke, denbora asko jaten duela batean eta bestean kontsulta berak egiten ibiltze horrek, ez dela batere atsegina oinarri se-gururik gabe ihardun beharra eta, okerrago dena, ez dugula maiz aukerarik egokiena egingo: «aukeraren maukera, azkenean okerra», hemen ere!

Errazagoa da, jakina, problema txiki eta handiak bata bestearen gainean pilatzea, zeini bere argibide zehatza aurkitzea baino. Errazenetik abiatu gara gu; baina espero dugu, zailagoak errazagotzeko lagungarri gerta daitekeela gal-de-sorta hau erabakiak hartu behar dituenarentzat.